

**HITZ BITAN****FUTBOLA****Frantziako Liga hasi da hogeitau talde eta aurrekontu eskasekin**

Bart gauean Guingamp eta Lyonen arteko neurketarekin hasi zen Frantziako Liga, Europako Ligarik goiztiarrean. Berritasunen artean, aurtent Ligako talde kopurua hemezortzitik hogeira igo da. Bestelako berritasun gutxi-rekin hasiko da, ordea, aurtent taldeek ez baitute fitxaketa garestirik burutu. Hala ere, 38 jokalaririk hegoamerikar izango ditu Ligak.

**FUTBOLA****Galder Zubizarreta fitxatu du Realak baina Eibarren jokatu du**

Realak Galder Zubizarreta bilbotarra fitxatu du, baina utzita jokatu du Eibarren denboraldi batez. Bilbotarra zentral postuan jokatzen du eta 22 urte dauzka. Realak bi urterako fitxatu du eta beste urtebetez luzatzeko aukera dauka. Zubizarretak Burgosen jokatu du orain arte, baina taldea diru kontuak direla-eta bigarren B mailara jaitsi denez talde txuri-urdinera joateko erabakia hartu du.

**TXIRRINDULARITZA****Euskaltel, iBanesto, eta Once-Eroskik parte hartuko dute Etorkizuneko Tourrean**

Euskaltel-Euskadi, iBanesto.com, eta Once-Eroskik, besteak beste, parte hartuko dute Etorkizuneko Tourrean. Hogeita hemeretzigarren aldia izango da aurtengoa eta irailaren 5ean emango zaio hasiera Saint-Grégoiren. 1.463 kilometro egin ostean, Saint-Flourren amaituko da Amauriy Sportek antolatzen duen lasterketa hau.

**ERRUGBIA****Australia eta Zelanda Berria aurrez aurre Hiru Nazioen Torneoan**

Australia eta Zelanda Berriak indarrak neurtuko dituzte gaur Hiru Nazioen Torneoan. Txapelketa honetan munduko hiru talderik indartsuenek jardungo dute nor baino nor: Hegoafrika, Zelanda Berria, eta Australia. Azken hau da, hain zuzen ere, azkeneko bi aldietako irabazlea. Azken hiru urteetan zazpi bider jokatu dute elkarren aurka eta australiarrek lautan gailendu zaizkie Zelanda Berriko.

**Australiarrek munduko marka hobetu dute jazarpeneko 4.000 metrokoan**

Txirrindularitzako talde australiarrak munduko errekorra ondu du jazarpeneko 4.000 metroko proban. Egunotan jokatzen ari diren Commonwealtheko Jokoetan Australiako taldeak 3 minutu 59 segundo eta 583 milareneko denbora egin zuen. Graeme Brown, Peter Dawson, Mark Renshaw eta Luke Robertsek osatutako lauokoa Ingalaterrako taldearen aurkako finala jokatzen ari zirela gaititu

zuen munduko marka; eta bide batez, Commonwealtheko Jokoetan urrezko domina eskuratu zuten. Modu honetan, Alemaniak Sydneyko Joko Olinpiarretan egindako denbora (3 minutu 59 segundo eta 710 milaren) 127 milarenetan hobetu zuten. Aurreko marka italiarrek eduki zuten aurreko sei urteetan, baina alemaniarrek segundoko batean ondu zuten Sydney.

**SEGA.** Euskadiko Sega Txapelketa igande eguerdian izango da, Zornotzan

**Mikel Aranalde eta Jon Lapazaran dira igandean segako txapel nagusia irabazteko faboritoak**

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Euskadiko sega txapeldun berria izango da igandean, azken urteotako irabazle Bixente Mitxelenak ez baitu parte hartu aurtengo txapelketan. Zornotzako San Miguel auzoan izango da norgehiagoka, eguerdiko 12:00etan, eta bertan bilduko dira sasoiko lau segalari onenak: Xabier Martiarena —Bengoetxea II.a—, Jexuxmari Ormaetxea, Mikel Aranalde eta Jon Lapazaran.

Aditu guztien arabera, Aranalde eta Lapazaran dira txapela irabazteko faboritoak. Mikel Aranaldek Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen joan den asteburuan Hernanin, eta berriro onenen artean dela erakutsi zuen. Jon Lapazaranez berriz, ez du Bizkaiko Txapelketan parte hartu, baina ongi prestatu da igandeko saiorko, eta batzuk faboritotzat jo dute. Aranaldek dio horiek kazetari eta jarraitzaileen kontuak baino ez direla: «Ez dakit zergatik ematen duten Lapazaran faborito; horiek kazetarien kontuak dira; guk, behintzat, lanak emango dizkiogu».



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Mikel Aranalde, Gipuzkoako Txapelketan.

Xabier Martiarenak lehen aldiz parte hartuko du Euskadiko Txapelketan, eta finalean lan txukuna egitearekin nahikoa

duela dio. «Laugarren postua izango da nirea, baina txukun aritzearekin kontent nintzateke», azaldu du. Jexuxmari Ormaetxea, berriz, bi faboritoak estu hartzen saiatuko da, hirugarren postuari ihes egitea zaila izango zaion arren.

**TXIRRINDULARITZA****Eneritz Iturriaga Europako bosgarren erlojuaren kontrakoan**

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Eneritz Iturriaga txirrindulariak 23 urtez azpiko Europako txapelketan bosgarren postua eskuratu zuen. Iturriaga egungo Espainiako txapelduna da eta bihar abiatuko da Hollandara Emakumezkoen Tourrean parte hartzeko Joane Somarribaren talde berean.

Maila honetako lehena Olga Zabelinskaia errusiarra izan zen 32 minutu eta 22 segundoko denborarekin eta minutu eta 23 segundoko koska atera zion Iturriagari. Hala ere, brontzezko domina lortzear egon zen, hirugarrenetik 18 segundora geratu baitzen.

Erlojuaren kontrakoak 23,3 kilometro zituen eta Grassobioko (Italia) lurretan jokatu zen.